



EBean ERRETIRATZEA

EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK



ZER GERTATZEN DA PENSIO-ESKUBIDEEKIN?

- > EBko herrialde batean baino gehiagotan lan egin baduzu, litekeena da pentsio eskubideak metatu izana herrialde bakoitzean.
- > Erretiroa hartu baino sei hilabete lehenago, gutxienez, informazioa eskatu behar duzu zure herrialde berrian pentsioa jasotzeko zer egin behar duzun jakiteko; izan ere, zenbait herrialdetan hainbat hilabete iraun dezakete pentsioa eskatzeko izapideek.
- > Pentsioa kobratzen has zaitezke bizi zaren herrialdean edo azken aldiz lan egin duzun herrialdean, erretiroa hartzeko legezko adina bete duzunean.

- > Erretiroa hartzeko legezko adina aldatu egiten da EBko herrialde batetik bestera; agian denbora gehiago itxaron beharko duzu pentsioa kobratzeko EBko herrialde batzuetan.
- > EBko hainbat herrialdetako pentsioak jasotzeko eskubidea baduzu eta pentsio bat bestea baino lehen kobratzen hasten bazara, jasotzen dituzun zenbatekoak alda daitezke
- > Garrantzitsua da lan egin duzun herrialde guztietan aldeztatik ikertzea zein izango den zure egoera, eta kobratzen hasteko data alda dezakezun.
- > Informazio gehiago: https://europa.eu/youreurope/pensions_es

ZURE KASUA IZAN LITEKE Pentsioa beste herrialde batean eskatzea

Sofiak, espainiarra jatorriz, Espainian eta Italian lan egin zuen Espainiara itzuli eta erretiratu gisa bizitzen hasi aurretik. EBko bi herrialdetan lan egin zuenez, pentsio eskubideak pilatu zituen bietan. EBren arauen arabera, gaur egun bizi den herrialdeko (Espainia) edo azken aldiz lan egin zuen herrialdeko (Italia) pentsio administrazioarekin jarri behar da harremanetan. Pentsio-eskaera Espainian aurkeztea erabaki du, eta, une horretatik aurrera, Espainiako administrazioaren ardura da eskaera izapidetzea eta lan egin duen herrialdeetako kotizazioekin espedientea sortzea.



ZER ESKUBIDE DUTE BIZILEKUARI BURUZ PENSIODUNEK ?

- > EBko herritarra zarenez, EBko edozein herrialdetan bizi zaitezke hiru hilabete baino gehiagoz, baldin eta hauek badituzu:
 - > harrera-herrialdeko mediku-aseguru osoa
 - > han bizitzeko diru-sarrerak nahikoak, laguntza ekonomikorik gabe
- > Pentsiodunen kasuan, diru-sarreratzat hartzen dira pentsioa eta beste edozein jatorritako diru-sarrerak
- > Harrera-herrialdeak hiru hilabete igaro ondoren egoiliar gisa erregistratzeko eska diezazuke.
- > EBko herrialde askotan nahitaezkoa da nortasun-agiria edo pasaportearen aldean eramatea beti.
- > Isun bat jar diezazukete, edo, dokumentazioa etxean utziz gero, aldi baterako atxilotu zaitzakete; baina hori ez da berez herrialdetik kanporatzeko arrazoia.

- > Legez EBko beste herrialde batean bost urtez jarraian bizi izan bazara, automatikoki eskuratzen duzu bizileku iraunkorra izateko eskubidea.
- > Ez diote zure bizilekuaren jarraipenari eragiten honako hauek:
 - > aldi baterako absentziak (urtean sei hilabete baino gutxiago)
 - > pisuzko arazoak direla-eta (gaixotasun larria, lana, lanbide-heziketa, etab.) hamabi hilabetez jarraian kanpoan egotea.
- > **Bizileku iraunkorra izateko eskubidea gal dezakezu bi urtez jarraian herrialdetik kanpo bizi bazara**
- > Informazio gehiago: https://europa.eu/youreurope/pensionresidence_es
- > Erretiroa hartu aurreko bost urteetako gutxienez bitan mugaz gaindiko langile izan bazara, osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duzu, bai bizi zaren herrialdean, bai lehenago enplegu-herrialdean.
- > Zure lehenago enplegu-herrialdean hasi zinen tratamendu bat jasotzen jarrai dezakezu, baita erretiroa hartu ondoren ere. Horretarako, S3 inprimaki bat aurkeztu behar diozu herrialde horretako osasun-administrazioari.
- > Pentsio bat edo ezintasunagatik prestazio bat eskatzen baduzu, baliteke lehenago lan egin duzun herrialde bakoitzak bere aldetik aztertu nahi izatea.
- > Kontuan izan gerta daitekeela herrialde batek uste izatea ezintasun larria duzula eta beste batek ezintasunik ez ikustea
- > Informazio gehiago: https://europa.eu/youreurope/health_es



ATZERRIAN, PENTSIODUN GISA, OSASUN-ESTALDURARIK LOR DAITEKE?

- > Zure herrialdeko pentsio bat kobratzen baduzu, herrialde horretako aseguru medikoaren sistemak zu eta zure familia estaltzen zaituzte, beste herrialde batzuetako pentsioak jasotzen dituzun ala ez kontuan hartu gabe.
- > Ez baduzu bizi zaren herrialdeko pentsiorik edo bestelako diru-sarrerarik jasotzen, denbora gehien aseguratuta egon zaren herrialdeko mediku-aseguruaren sistemak estaliko zaitu.
- > Eskatu S1 inprimaki bat (lehenago E106) zure herrialdeko aseguru medikoaren erakundeari:
 - > Eman S1 inprimakia helmugako herrialdeko aseguru medikoko erakundeari, iristen zarenean.
 - > Dokumentu horrek frogatzen du bizi zaren herrialdean osasun-laguntza osoa jasotzeko eskubidea duzula

INFORMAZIO GEHIAGO:
<https://europa.eu/youreurope/es>

© Europar Batasuna, 2018

Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 2018.

Baimena dugu berrerrabiltzeko, iturri bibliografikoa aipatzekotan.

Europako Batzordearen agiriak berrerrabiltzearen gaineko politika Erabaki honek ezarri zuen: 2011/833/EB (DO L 330, 2011ko abenduaren 14koa, 39. orria).

Europar Batasuneko egile-eskubideen men ez dauden argazkiak edo bestelako materialak erabili edo erreproduzitu badiira, titularren baimena eskuratu beharko da.

Argitaraldia: 1.a argitaletxe honetan: 2020ko apirila

Ale-kopurua: 170 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Admistrazioa. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Lehendakaritza
 Internet: www.euskadi.eus

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
 Donostia-San Sebastián. 1 - 01010 - Vitona-Gasteiz

Inprimaketa: PRINTHAUS, S.L.

Lege gordailua: LG G 00320-2020



LEHENDAKARITZA
 PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco